

Kirol-kazetari frustratu baten txakurra

Hasier Rekondo

Uste dut bizitza guztiak direla interesgarriak, asmatuz gero bizitza horietatik zer eta nola idatzi», dio Juan Luis Zabala kultur kazetariaren *alter ego*-a omen denak artefaktu literario erakargarri honetan. Baina nola demontre ez da izango interesgarria *Euskaldunon Egunkaria* jaio zenetik eta itxi zuten arte, eta gero BERRIA honetan kultur kazetari izandako, bene-benetan kirol-kazetari izan nahi duen arren, Juan Luis Zabalen bizitza? Nartzisismo efektistaren edota talentu faltaren mamuak bakarrik zapuztu zezakeen proiektua. Ez da kasua. Liburuak denetatik du, botika literario oparoak legez, eta ez da falta ezta *thriller* kutre bat ere, Eneko Aizpuruaren *Herensuge gorriaren urtea* nobelarekin (Erein, 2013) zenbait antzekotasun aurkeztuz, agerian bada ere.

Juan Luis Zabala XLI. Irun Hi-

ria Kutxa Literatur Saria jaso zuen *Txistu eta biok* tramankulu literario zoro, erakargarri, ironiko eta desiragarri honekin. Esan dezadan hasteko eskertzekoa dela Algaida argitaletxeak edizio txukuna kaleratzeko egin duen ahalegina, nobela-eguneroko-*thriller* beltz hau edizio gustagarri batean irakurtzeko aukera ez baita maizegi izaten azkenaldian.

Zabalak azkenaldian hain gaitzetsia izan den auto-fikzioaren (Enrique Vila-Matasez itzala oso luzea da) erritmoak maisuki



'Txistu eta biok'

Egilea: Juan Luis Zabala.
Argitaletxea: Algaida.

menderatzen dituela erakusten du liburu honetan. Harekin Donostiako Txomin Enea auzo baztertuak kasik kasualitatez bizi den Txistu txakurraren konpainia noblean, *alter-ego*-ren ifrentzu den gizatiarra, ibilera kulturalak, existentzialak eta politiko-soziologikoak kontatuko ditu, lehen pertsona zintzo bezain iruzurtia erabiltziz, proiektuaren eraikitze prozesuaren berri ematen duen bitartean. *Tour de force* egozentriko, kultu eta kutre horretan murgilduko du irakurlea, azenario existentsial bati itsatsita, egileari hain gustuko zaizkion gaiak jorratuz: euskal kulturaren egoera patetiko («Kultura, egun eta hemen, hamarretik bederatzetik hiru laurden gutxienez, merkataritza, turismoa eta erakunde ofizialen propaganda da...»), eskararekiko tabuak (zein nekeza den euskalduna zein eralduna izatea—Zelaia igeltseroaren ahotsean—), gatazkaren auzia distantziatuz begiratuz edota immigrazioari buruz zenbait herritarren be-

netako izuak agertuz, besteak beste. Zabalen pentsamendua ez da politikoki zuzena. Eta horretan bidaide du Lisa Beitia pertsonaiaren eguneroko paraleloa.

Radio Marca entzuten ari zela izan zuen Zabala Saramagoren heriotzaren berri. Nolabaiteko distantzia hartu du jada kulturarekiko, eta beren burua aldatu ezin dutenean, kulturaren bidez gizartea eraldatu nahi duten sortzaile guztiekiko. Realzale porrokatua da, kulturazale baino gehiago. Bainerik jartzekotan, egileak lutzutako desafiari jarraiki, «ondo prestatua bainago kritikarik suntsitzaileen ere neureganatzeko», euskal kulturako zenbait pertsonaiari dien larregizko miresmena, eta joko ematen duen arren, demasezko aipuak, zenbait aitaponteren larregizko pisua liburuan.

Juan Luis Zabala beti euskal idazlearen tropelean kokatu izan dute; apika kultur kazetari gisa izan duen identifikazioak ez dio asko lagundu. Nago oraingo honetan eskpada onean sartu dela, barkatuko didazue erkaketa erraza, eta lasterketa buruan jartzeko aukera profutatua duela, betiere Txisturi esker. Txisturik gabe, bere txikitasunean handi den esperimantu hau ez bailitzateke posible izango.



'Gizabere kooperatiboaz'

Egilea: Joxe Azurmendi.
Argitaletxea: Jakin.

Zer da gizakia? Nolakoa da berez? Berekoia eta lehiatzailea, ala lagunkoia eta kooperatzailea? Bestela esanda, kapitalismoa ala sozialismoa da gizakiarengan naturalagoa? Aspaldiko kezka filosofikoari askotariko erreferentziak aztertuz heldu dio Azurmendi pentsalariari, Jakin Irakurleak bildumako 47. zenbakian.



'Bi erronbo'

Egilea: Amaia Higgs.
Itzultzailea: Arantxa Etxeberria Iturrate.
Argitaletxea: Ediciones Beta III Milenio.

Irakurlea sortzaile

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Liburuz ari den liburu bat da hau, estrainioa: istorio bat kontatzeke, idazlea bere zereginetatik iheska ikusiko duzu. Kontu eske dabil bere buruari «irakurle» deitzen dion pertsonaia, entretengarria noiz hasiko den galdezka. Aldi berean, idazleak irakurleari mezuak igortzen dizkio, egiten ari dena zuzitzeko, eta, gertaera hauek liburuaren istorioa direlarik, istorioak istorioen barruan gertatzen ari direla esateko, kontsolamendurako—edo... Lagun, liburu ezohiko baten bila bazabiltza, hau da zurea.

Muina begiratuta, irakurketa buruzko hausnarketa proposatzen zaigu, jardunaren oina-

rrizko ekintzetatik abiatuta—begiak letretan iltzatzetik hasita—, fikzioaren eraikuntzan parte hartzen duten elementuen azalazteraino. Xede irakurlea 12 urtetik aurrerako gaztetxo izanik, sakontasun teorikorik gabeko ariketa xume batzuen kateamen-



'Istoriorik gabeko ipuin istorioduna'

Idazlea: Iñaki Arranz. Ilustratzailea: Conchetta Probanza. Argitaletxea: Elkar.

dua eskaintzen zaigu, adin horietarako ohikoak diren umorea, ikerketa eta empatia bilatzen dituzten keinuak erabiliz (irakurketa ez zaiola gustatzen aitortzea, eta abar).

Lehen lerrotik bilatzen du probokazioa, «Ez dut irakurri nahi» batekin, motibazio falta duen irakurlea erakartzeko moduko erronka izango den itxaropenaz. Protagonistak bere ahotik kontatzen dizkigu irakurketarekin dituen penak, eskolan eta etxean derrigortzen dutela, eta tarteka gozaturen bat hartu badu ere, ez duela atsegin, zaila egiten zaiola...

Ondoren, jolasaren bidea hartzen du. Ez narratzaileak sortutakoa, baizik eta liburuak narratzaileari proposatzen diona. Izan ere, haur narratzaile-protagonista liburuaren irakurlea balitz bezala ari zaigu *kutxa txinatarrak* deitzen den jolasaren bidez, bata bestearren barruan dauden istorioen bidez, azalako marrazkiak adierazten duen moduan (gogoratu *Xabier* mitikoaren azala?). Narratzaile-protagonista, irakurlea denez, istorioaren bila ari da, hasieran pozik ezer irakurtzeko gogorik ez eta halere

hiru kapitulu irakurri dituelako, baina ondoren kexaka, ezer ez dela gertatzen, eta soilik bere jarduna gertatzen ari dela esanez. Halako batean liburuaren misterio bat dagoela otuko zaio, eta bera ikertzaile detektibe dela. Orduan idazlea pistak ematen hasiko zaio, eta bien arteko dialektika horretan liburuaren amaierara iritsiko gara, tartean ipuin pare bat eta poematxo bat irakurrita, bide batez.

Konturatuko zinen, irakurle, ezohikoa dela proposamena. Egia zor, gehiago gozatu dut proposamenak irudimenean zabaldu didan bidearekin jolasean, liburuaren irakurketarekin baino, literatur sorkuntza moduan mami gutxikoa iruditu baitzait, finean, hau ez da Queneauaren *Estilo-arietak*.

Idazleak badu literaturaren aurrean jarrera bere erakusten duen obra bat, *Hizkimilikilik!*, 28 ariketa desberdin laburrez osatuta. Eta badu literatur jolasen bilduma mamitsu bat ere, euskal letretatik jasotako azalpen eta adibide askorekin hornitua, *Hitzazti* izenburuarekin argitaratua 2006an.

Emakume talde bat da liburu-protagonista, tarteka elkarrekin afaltzeko geratzen direnak. Afarietako batean sexuak hitz egiten hasiko dira, lotsarik gabe. Emakumeentzat idatzitako liburu bat dela dio Amaia Higgsek, eta bertan literatura erotikoa aurkituko duela irakurleak.



'Mikro-ipuina 2013-2014'

Egilea: Askoren artean. Argitaletxea: Pamiela.

Publikazioak 39 testu biltzen ditu. Horietatik 37 sarituak izan dira Euskara Kultur Elkar-goak eta Pamiela argitaletxeak Nafarroan antolatutako VIII. eta IX. Mikro-ipuina lehiaketetan. Horiekin batera, Eñaut Elorrieta-ren eta Mariasun Landaren mikro-ipuina bana jaso dute.